

# ZAM

ZORROTZ/MORROTZ

62. ZBKIA 2020ko MARTXOA

## FABE DE FUKA ELEKTROTARANGA

MARTXOAK 8. ZORROTZAKO EKIMENAK

Zorrotza

**aek**

Zalbidea 7  
94 441 49 20  
zorrotza@aek.eus  
www.aek.eus

# Zorrotzako XXIV ipuin lehiaketa

Info gehiago:  
AEK euskaltea

Aurkezteko azken eguna:  
maiatzak 22

Non: Aek euskaltea  
eta Auzoka Komunitate Zentroa



## 12 URTEK BEHERAKOAK

1. SARIA: 60 euroko kultur bonoa

2. SARIA: Jolas euskalduna

## DBH eta BATXILERGOKO IKASLEAK

1. SARIA: 100 euroko kultur bonoa

2. SARIA: Jolas euskalduna



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babesleak:



# euskara, sabela eta musika ZORROTZAN BAT!

LARUNBATA, MARTXOAK 7

10 de FRAY JUAN taberna

12:00

UMEENTZAKO TALO ESKOLA

12:45

TALO POSTUA

13:30

BERTSOAK eta TRIKITIXA

15:00

HERRI BAZKARIA

• Indabak, entsalada eta sakramentuak  
Postrea, ardoa eta agia.

Bazkaria etorriko direnen artean urdolaizpiko  
bat zozkatiko da.

17:30

KONTZERTUA: GU ANAIAK

\* Egun osoan "Lehen berba euskaraz":

Euskaraz edaria eskatzen dutenen artean zozketa ederrak.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babesleak:



## Titularra

Auzo Elkartetik bilera-sorta jarri dugu martxan gobernu-taldeko zinegotziekin eta oposizioko alderdietako zinegotziekin, horiei guztiei Zorrotzari eragiten dioten arazo berri emateko. Era berean, Sader eta gainerako enpresa kutsatzaileen gaiari buruzko kanpaina diseinatzan ari gara eta datozen hilabeteotan Udal Osoko Bilkurari gai honen inguruan mozio bat aurkeztea da gure asmoa.

Oso gertutik jarraitzen ari gara trenbide-pasaguneak eta Feve geltokia lurperatzeko prozesua. Orain Madrilen gobernu osatua da eta guk ahaleginak egiten jarraituko dugu hori lehenbailehen egia bihurtzeko.

Hauek, beste gai askorekin batera, ondarea, hirigintza, osasuna, hezkuntza, bizikidetzeta ... eta auzoan eragina duten beste eguneroko gaietan ari gara lanean elkartean. Horiek guztiak oso garrantzitsuak dira, izan ere gure auzoa guztiontzako leku hobea bihurtzea da gure helburua. Adi egon zaitezte eta ahal duzuen neurrian parte hartu Zorrotzako gizarte bizitzan. Badakigu horrela izango dela. Gogora ezazue asteartero biltzen garela, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Auzo-Etxean.



## HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

# ZM

ZORROTZ MORROTZ

**Zorrotzako kultur aldizkaria**  
62. zenbakia. 2020ko martxoa

Argitaratzen du:  
**Zorrotzako Euskal Txokoa**

AEK euskaltegia  
**Zalbidea, 7 behea**  
**48013. Zorrotza. Bilbo**  
Emaila: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

 [facebook.com/ZorrotzMorrotz](https://facebook.com/ZorrotzMorrotz)  
 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

**Koordinazioa:** Naroa Peña

**Diseinua eta maketazioa:**  
amc diseinua

**Erredakzioa:**

- Ibai Barrios
- Ainar García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

**Zuzenketak:** Iñigo

**Laguntzaileak:**

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Iraitz Zuloaga

**Inprimaketa:** Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukia erantzule bakarra



# ZORROTZA HERRIGINTZAN



**ZORROTZAKO BATZOKIA**

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)





## Gernikako arbolaren kimua ziurtatzeko plaka jarri dute

Igor Gutiérrez

laz, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zen, Auzo Elkartearen 50. urteurrenaren oroigarri. Bada, otsailaren 17an, zuhaitz horren jatorria ziurtatzen duen plaka jarri zuten, ohi den protokoloari jarraiki. Ekitaldira bertaratutako ordezkarien artean hauek ziren, besteak beste: Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea; Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea; eta Udalbatzeko hainbat kide, hala nola, Alfonso Gil (PSE), Marta Ajuria (EAJ), Jone Goirizelaia (EH Bildu) edo Ana Viñals (EP).

Auzo Elkarteko hainbat kide ere bertan egon ziren, Moises Arce lehendakaria buru. Bere hitzetan, Gernikako Arbolaren kimu bat izatea Zorrotzarako eta bere auzo mugimendurako aitorza ederra da. Bestetik, bertaratutako ordezkariei gure auzoarentzat premiazkoak diren eginkizunak azkartzeko eskatu zien, esaterako, FEVE lurperatzea.

Bilbon, Gernikako Arbolaren beste kimu batzuk daude, besteak beste, Begoñako baselizan, Basurtuko ospitalean, Arte Ederretako museoan edota Euskadi Plazan.



## Landan piztutako sute batek eraikin bat hustera behartu zuen

Aitor Marín

Joan den urtarrilaren 29an suhiltzaileek barruko aldean zeuden eta atera ezin ziren hiru adineko erreskatatu behar izan zituzten. Suak hartu zuen eraikina 2017an bost hildako eragin zituen ezbeharrean erre zen eraikinetik gertuen dagoena da.

Etxebizitza baten beheko aldeko gela batean piztu zen sua, eta egurrezko egitura duen eraikineko bi solairuri eragin zien.



# Bilbo barruko osasun desberdintasunak aztergai EHUko ikerketa-talde baten eskutik

Igor Gutiérrez

Pasa den urtarrilaren 29an, izenburu adierazgarridun hitzaldi bat izan genuen Auzo Etxean, Auzo Elkarteak antolatuta: "Posta kodeak kode genetikoak baino eragin handiagoa al du gure osasunean?".

Amaia Bacigalupe, EHUko irakaslea eta OPIK ikerketa-taldeko kidea, izan genuen hizlari (Osasunaren Gizarte-Baldintzatzaile eta Aldaketa Demografikoari Buruzko Ikerketa-Taldea). Bere hitzetan, gure osasunaren %25 baino ez dago osasun-sistemaren menpe. Beste zatia, gure lanbide-motak, errentak, jate-ohiturek, ariketa fisikoak, kutsadurak etabarrek osatuko lukete. Horrela azaldu daiteke, esaterako, langile-auzo

batean titulazio unibertsitario bat edukitzea gizarte-baldintzatzaile bat izatea.

Gure ezusterako, Zorrotzari buruzko adierazleek ez dute bereziki balio okerragorik erakusten baina, hizlariaren aburuz, datuak tentuz hartu behar dira eta betiere dagokion gaixotasunari buruzko ezagutzak mahai-gaineratuz. Hala, luzaro bizitzea posible da baina bizi-kalitate kaxkarragoarekin edo, are gehiago, eritasun jakin bat izan gabe osasun-arazoak edukita (minak, arnasteko zailtasunak, mugikortasun zailtasunak...).

Bilboko osasun datuok ikusgai ditugu OPIKen webgunean: <https://www.ehu.eu/eu/web/opik/salud-bilbao>

## Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko tailerra jarri dute Zirgarien kaian

Zorrotz Morrotz

Bilboko Udalak bizikletak norberak konpondu eta garbitzeko tailer bana jarri du Zirgarien kaian eta Botika Zaharreko gunean. Proba pilotu honekin Bilboko bizikleta erabiltzaileen aspaldiko eskaria ase nahi du Udalak. Instalazio horiei esker, Bilbon dauden lehenengoei esker, probaldia amaitutakoan ebaluazioa egin ahal izango da, eta emaitzak positiboak badira, behin betikoak bihurtzeko aukera eta gune berriak jartzea aztertuko da.

Zorrotzan dagoen gailuak garbiketa-sistema, puze-sistema birakaria eta presio-manometroa ditu. Halaber, bizikleta finkatzeko beso-formako esekidura-sistema eta guneko zutabera lotutako banakako altzairuzko kableak dituzten zortzi erremintako joko bat dauzka guneak.



**FARMAKOTEGIA**  
**SUSANA**  
**URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tfn. 94 441 61 46

## Kiroldegiak errugbi zelai berria du



Zorrotz Morrotz

Bilboko Udalak errugbi zelai berria atondu du Zorrotzako kiroldegiko kanpoaldeko instalazioetan. Udalak atletismo-pistaren barrualdean geratzen den lursaila eta belarra atondu ditu eta errugbi zutabe bi jarri ditu muturretan.

## 8 urteko kartzela-zigorra ezarri diote 2017an Soka kalean neska-lagun ohia hiltzen saiatu zen gizonari

Zorrotz Morrotz

Bizkaiko Auzitegiak zortzi urteko kartzela zigorra ezarri dio 19 urteko gazte bati, 2017ko uztailaren 9an Soka kaleko etxebizitzan bizi zen bikotekide ohia labankadaz hiltzen saiatzeagatik. Neskak eskailera-burura irten eta bizilagun-

lan hauei esker, Universitario Bilbao Rugbyk, errugbia lantzen duen Bilboko klub bakarrak, entrenamenduetarako beste udal espazio bat dauka, orain arte Errekaldeko kiroldegi-koa baino ez baitzuen. Zelaia, premien araberako, klubeko kategoria guztiek erabiliko dute; baina, batez ere, “Errugbia eta balioak Zorrotzan” proiektua garatzeko balioko du. Proiektu berritzailea, inondik ere, hiru helburu dituena:

- neskato-mutikoen kirol arloko eta maila pertsonaleko garapena
- balioetan heztea
- parte-hartzaileen eta euren familien integrazio soziala

Oraingoan, 6 eta 12 urte bitarteko hogeita inguru ari dira. Zazpilandako Eskola HLHIkoak, Zorrotza-Fray Juan HLHIkoak eta Zazpi Jausikoak. UBR-ren “Errugbia eta balioak Zorrotzan”, Zorrotza 2017-2022 gizarte eta hezkuntza arloko proiektuaren barruan dago, Bilboko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta auzoko erakunde sozial eta kulturalen ekimenez; asmoa da auzoan inplikazioa duten erakunde, instituzio eta zerbitzuek batera jardutea Zorrotzako neskato-mutikoen eta nerabeen hezkuntza-garapena hobetzeko, eta ondorioz, bizimoduaren kalitatea eta auzoaren irudia hobetzeko.

naren atea jo zuen, eta hark polizia deitu zion. Horri esker bizia salbatu zuen, nahiz eta ondorio fisiko eta psikologiko garrantzitsuak izan. Erasoak eragindako traumaren ondoriozko ideia autolesiboekin ospitaleratu zuten.

Auzitegiak hilketa saiakeragatik ez ezik (zazpi urte eta erdiko kartzela zigorra), akusatua tratatuaren ohiko delituagatik ere zigortu du (sei hilabeteko espetxealdia), bikotekide ohia “menderatze psikologiko” baten pean jartzen zuelako, umiliatu, hertsatu eta kolpatu egiten zuelako. Familia barruko tratatuaren eta mehatxuen beste hiru gertakariren egiletzat ere jo du epaiak.

# Txorrikoa

Auzune hau Zorrotza Kastrexana errepidearen gainean dau, kastrexanarantza azken etxetaldea izanda. Kastrexana gariatik jesiten dan arantxo baten alde bietan dagoz egindek etxeak, gehienak bere lur eremuegaz, gaur egun auzoan mantentzen dan abere gune bakarra, ardiek eta zaldireren bat ikusiko dogu handik ibiltzean.

Kadaguaraino jeisten ba gara, aintzineko tren geltokiaren ezaugarri batzuk igertzen dira ondino.

Bere garaian Saninazio jaiak ospatzen ziren bertan, latejako jaiak zirela eta erromeriarako leku ona zegoelako, azken urteak Zazpilandetara igo bai ebiezala hango biztanleak.

Famatue ba zan ere hango txakolina, gaur egun mahatzak zaindu barik ba dagoz ere.....



Iragar zaitetz

**ZM**

ZORROTZ MORROTZ  
aldizkarian!

Euskara sustatu  
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:  
[zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

**ESKAINTZA  
PROGRESIBOETAN  
ARMAZOA +  
KRISTALAK** GOI-  
GAMAKOAK

**265€**

Sustapena indarrean ++ 4.00 esferako eta  
-2.00 zilindroko arteko graduazioetarako  
RPS: 213/18

**ibaretaluxury**  
OPTICA

*cafe***txinbo**

*Espezialitateak:*  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74





# “Gure bezeroak pozik ikusteak lana errazagoa egiten dit”



## ANNY JAZMIN BOTERO

**Jatorria:** Kolonbia.  
**Noiztik:** 2019. urtetik.  
**Adina:** 40 urte.  
**LANBIDEA:** Rudy tabernako zerbitzaria

Nahiz eta Zorrotzan bertan bizi ez, gure auzoa ondo ezagutzen duen pertsona dugu Anny Jazmin kolonbiarra. 2019an ekintzaile moduan eta ezagun bati esker Rudi Taberna salgai zegoela jakin eta birritan pentsatu gabe “pizsinara botatzea” erabaki zuen.

**Testua:** Ibai Barrios

### **Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo egunak Zorrotzan?**

Auzoan bertan ez baina hemendik gertu bizi naiz. Zorrotzan proiektu berri bat hasteagatik poztasuna eta zirrara sentitu nituen.

### **Zer da zure herritik, Kolonbiatik, gehien duzuna faltan?**

Egia esan gauza gutxi ditut faltan. Nahiago ditut egunerokoan aurkitzen ditudanak.

### **Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna?**

Auzokideen artean dagoen batasuna eta giro ona azpimarratuko nituzke. Adibidez, egunero tabernako bezeroen aldetik sentitzen dudana babesa ere oso garrantzitsua da niretzat.

### **Nola suertatu zen Rudy taberna hartzeko aukera?**

Diru pixka bat aurreztuta nuen eta ezagun bati esker taberna hartzeko aukera ezinhoa suertatu zitzaidan. Ez nuen bitan pentsatu.

### **“Auzokideen arteko batasuna eta Zorrotzan oro har dagoen giro ona da hemengo gustukoena”**

### **Ostalariaren bizitza esaten duten bezain gogorra al da?**

Bai, jakina gogorra dela. Baina egia da gure bezeroak pozik ikustean lana errazagoa egiten zaidala.



### **Auzoan parte hartzea gustatzen zaizu?**

Bai, alde batetik nire negozioagatik, eta halaber auzo eder honetan integratzeko asmoz antolatzen diren ekintzetan parte hartzea gustuko dut.

### **Euskara ezagutzen duzu? Ikastea gustatuko litzaizuke?**

Gutxi ezagutzen dut baina badakit euskal kultura eder honen berezko hizkuntza dela. Euskara ikastea gustatuko litzaidake kultura handi honen barruan lotuago egoteko.

### **Kolonbiara joaten zara sarritan?**

Lehen maiztasun handiagoarekin joaten nintzen baina badira 3 urte bertara ez naizela itzuli.

“ Euskara gutxi dakit, baina ikastea gustatuko litzaidake hemengo kultura handi eta eder honen barruan lotuago egoteko ”

### **Zure jaioterrira itzultzea gustatuko litzaizuke?**

Egia da bizitza erdia hemen egin ostean sentimendu kontrajarriak ditudala, hemengo eta kanpoko sentitzen naizelako aldi berean. Baina norberak ez daki zer gerta daitekeen etorkizunean. Beraz, ezin ezetz esan.

**El 10 de Fray Juan**

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak  
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)  
Aroko onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

**SAZ**  
OKINDEGIAK

**Zorrotzako labea**

Zugandik gertu


Zorrotza Kastrexana errepedea, 34  
Tfn. 94 441 09 71  
Zorrotza - 48013 BILBO

**Santer**  
& BAR

Afariak ostirala eta larunbatetan  
Ettxeko berezitasuna: katxopoa.

**Telefona: 944 415 416**  
Zorrotzabaso, 13  
ZAZPI LANDA

# Zorrotzako emakumeok ere borrokan



Nahiz eta hurrengo martxoaren 8rako aurten greba feminista deialdirik ez egon, Mugimendu eta talde feministek hainbat ekimen prestatu dituzte aurreko urteetako olatuari eusteko. Baita Zorrotzan ere.

**Testua:** Zuriñe Vila eta Naroa Peña

Bost emakumetik bat bere bizitzan zehar indarkeria sexistaren biktima izan da, erailako emakumeen gehiengoa beren bikote-kideek (edo bikote ohiek) hildakoak dira, emakumeek gizonezkoek baino lan baldintza okerragoak dituzte... Hala eta guztiz ere, berdintasunean bizi garela sinestarazten digute. Askotan gu geu ez gara kontziente noraino iritsi daitekeen sexuen arteko ezberdintasuna.

Arrazoi horren ondorioz, eta emakumezkoek jasaten dugun zapalkuntza eta menpekotasuna dela eta gure auzoan emakumeak gorapatzeko eta gure arteko harremanak sendotzeko hainbat ekintza burutzen ari dira azkenengo denboraldian; eta hurrengo martxoaren 8a beste mugarri bat izango da borroka horretan. Iaz, emakumeok lan

guztiak egiteari utzi genion eta Euskal Herriko kaleak gogor astindu genituen, gure herriak aldarrikapen, ekintza eta elkartasun feministaz betez. Grebak jarraipen masiboa izan zuen: ezin zenbaki edo ehuneko batekin neurtu, zenbaezina baita herriak kalea hartzean duen indarra. Horregatik ez dago zifrarik martxoaren 8an gertatutakoa jasoko zuenik, baina guztiok gogoratzen dugu Bilboko kaleak hartu zituen jendetza.

Aurten, ez da greba feministarako deialdirik egongo, baina greba deialdi ez honek ez du esan nahi mugimendu feministatik ezintasun bat edo su-etenik bat dagoenik, Euskal Herriko Mugimendu Feministak berak komunikatu baten bidez adierazi duenez, eta “batzuek holan ikusarazi nahi izan arren”. Izan ere, Mugimenduak greba feminista emakume langileak antolatzeko bitarteko bat gehiago dela





*lazko Martxoaren 8ko Bilboko mobilizazioaren irudi bat. Aurten eguerdiko 13:00ean manifestaziora deitu du Mugimendu Feministak Bilboko Jesusen Bihotza plazan. Argazkia: Ecuador Etxea*

azaldu du, eta helburu izan beharrean, aha-  
legin eraldatzailean jarraitzeko tresna bat da.  
Eta beste eredu horretan sakontzeko, hain-  
bat ekimen berri antolatuko dira.

Horietako bat Zorrotzuz plataformak 2014.  
urteko azaroaren 25etik, Emakumeen Kon-  
trako Indarkeriaren Aurkako Egunean, anto-  
latzen duen kontzentrazioa da. Horretaz gain,  
aurten “Emakumea izan” tailerra antolatu du.  
Tailer horren helburua emakume izateak zer  
suposatzen duen inguruan hausnartzea da;  
eta horretarako, otsaileko ostiral arratsaldean  
Zorrotzako Auzo-Etxean 25 emakume  
inguru bildu dira. Tailerra 4 saiotan banatuta  
egon da. Saio bakoitzean emakume izatear-  
en alderdi bat landu da: ezagutzea, entzu-

tea, sortzea eta proiektatzea. Tailerra arte  
dramatikoko profesional batek gidatu du eta  
hausnarketa bultzatzeaz gain emakumeen  
arteko harremanak sustatzea eta amaierako  
“performance” bat ere diseinatzea eta an-  
tzeztea lortu nahi da.

Bestalde, 2019. urtean Soinkariak Zorrotzako  
talde feminista berria sortu zen. Taldea hasi  
berria da eta momentuz soilik hiru-lau aldiz  
batu dira 20 emakume inguru. Taldearen ibil-  
bidea laburra izan arren, eta momentuz mar-  
txoaren 8rako ekimenik antolatu ez badute  
ere, etorkizun luze eta eraginkorra izatea opa  
nahi diegu.

Gora emakume langileon borroka!



**Taramona**

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12



**ROCKET  
TAVERN**

Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

**FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98**



Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefonoa: 94 441 64 86

FABE DE FUKA: Elektrotzaranga

# “ Ez dakigu zertarako, baina inoiz berriro batuko garela ziur gaude ”



Ibai bonbojoleak; Erlantz kutxa eta txastonjoleak; Borja gitarrajoleak; Iñigo bibolinjoleak; Iñigo gitarrajoleak eta abeslariak; Leire teklaturjolea eta abeslariak; eta Xabi baxulariak osatzen zuten Fabe de Fuka elektrotzaranga, urtarrilean bere ibilbideko azken bi kontzertuak eman zituenean. Kideen lehenetasunak aldatu direla azaldu dute, beste hainbat taldetan ibiliak dira batzuk eta familia izan dute beste batzuek. Hala ere, nahiz eta entseguen errutina behin betiko bukatu den haientzat, ziur daude elkarrekin konpartitu duten militantziak eta filosofiak berriro elkartuko dituztela. Izandako ibilbideaz aritu gara azken emanaldiaren ostean.



## Hainbeste urteren ostean, zergatik agur?

*Iñigo:* Urteak aurrera joan dira, taldekide batzuek seme-alabak izan dituzte, beste musika talde batzuetan aritzen direnak ere badaude... Eta lehenetsi behar da. Izan ere, Fabe de Fuka zaletasun bat besterik ez da izan. Musikari berriak bilatzeko aukera legoke, baina uneoro suertatuko litzatekeen zerbaite izango litzateke.

## Noiz eta nola sortu zen Fabe de Fuka?

*Borja:* Fabe de Fuka lagun talde honek izan di-tuen hiru izenetatik azkena da: Txiri Txori ume-berbena hasieran; baina nekatu ginen hori jotzen eta gazte-berbena bihurtu genuen, Txiri Txorra sortuz; Fabe de Fuka orain dela 7 urte gutxi gora behera sortu zen, jolasez aspertuta... Nire ustez, kuadrilla honek duen energia puntu bereziak noizean behin lur jotzen du, eta espazio berri bat behar dugu denok gustura egoteko. Eta kalean jendearekin egotea gunerik egokiena zela erabaki genuen.

*Iñigo:* Txiri Txorra sorreraren momentua dut gogoan: berbena baten ostean, apur bat baxu geundenean, norbaitek proposatu zuen umeentzat izan beharrean, parrandazaleentzat jotzea. Eta jendeari gustatu zitzaion!

*Xabi:* Lehendabizikoz jo genuen Zorrotzako jaietan, musikariak ginen heinean laguntza eskatu ziguten arazo ekonomikoak zeudenean. Eta ekonomikoa izan da Fabe de Fuka sortzearena: sonorizazioa eta musika ekipoa ez da montatu behar eta horrek errazten du Jai Batzorde, Gaztetxe edo herri mugimenduentzat jotzea. Elektrotzaranga formatua askoz moldakorragoa da.

## Izenaren zergatia aipatu behar didazue...

*Borja:* Brainstorming baten ostean. Zaila da onartzea... Beste batzuk ere maneiatu ziren, agian are txarragoak... (kar, kar!)

## Agurtzeko emanaldi pareta eman duzue Zorrotzako Gaztetxean eta Bilboko Alde Zaharrean. Zerbait berezia prestatu zenuten?

*Xabi:* Bai. Alde Zaharrean emanaldi ugari emanda genituen eta beti oso eroso egon gara, eta bertan emanaldi ohikoagoa eman nahi genuen. Hasierako asmoa Santomasetan egitea bazen ere, bi taldekidek ezin zuten egun hartan. Hurrengo datarik aproposena euskal presoak herriratzea aldarrikatzen duen

urteroko manifestazioa zen. Antolatzaileekin harremanetan jarri ginen, beste urteetan egin bezala kalejira bat prestatzeko, eta gure azken "bolo" arrunta prestatu genuen. Hunkigarria izan zen, lagun ugari bildu baikeinen... Eta nola ez, Zorrotzan bukatu behar genuen. Hemen hasi ginen eta hemen bukatu behar zuen Fabe de Fukaren ibilbideak. Gaztetxean, geldirik, eroso, eta gure jendearekin batera bukatu genuen.

*Leire:* Zorrotzako emanaldian Txiri Txorra garraiko jolas batzuk berreskuratu genituen, eta argazki batzuk proiektatu genituen.

“ **Promotora edo udal batentzat jo beharrean, herri mugimendua laguntzen genuen. Giroa sortu baino, giroan sartzen ginen** ”

## Jendearekin. Funtsezkoa zenuten publikoaren inplikazioa zuen emanaldietan, eta horrela eskatzen zenuten, ezta?

*Leire:* Txiri Txorrarekin harreman estua genuen publikoarekin haien artean zegoen animadore baten bitartez jolasak dinamizatzeko. Fabe de Fukarekin, hain interakzio zuzenik ez zegoen, baina jendartean jotzen genuen lurrean bertan jendearekin batera giroa sortzeko.

## Beraz kaleko txaranga ibiltariko formatuan eroso. Eszenatokira igotzeko gogorik ez?

*Leire:* Alderantziz. Egonak ginen, eta jendearen artean egoteko eszenatokitik behera egi-tea erabaki genuen.

*Borja:* Fabe de Fukak nortasun bat zeukan non gauza batzuk ezin ziren planteatu. Adibidez gure katxea: guk oso argi izan dugu beti gizarte eragileentzat joko genuela eta beti eskatuko genuela prezio librea edo bo-rondatea. Horrek ere zerikusia dauka lurrean jotzearekin, jendearengandik hurbil... Gu ez gara "rockstar" batzuk... Eta mikroa beti irekita genuen edonorentzat.

Apur bat lotsatiak ere bagara, eta musikari oso birtuosak ez izanda, espaloian agoteak lasaitasun puntu bat ematen digu, agian goian egongo ez zena.





“ Guk oso argi izan dugu beti gizarte eragileentzat joko genuela eta beti eskatuko genuela prezio librea edo borondatea. Horrek ere zerikusia dauka lurrean jotzearekin, jendearengandik hurbil ”

**Gauzak horrela agian ez duzue oholtza asko zapaldu, baina hainbat jaitan ziur egonak zaudetela. Aipagarrienak?**

*Borja:* Ba burura etortzen zaidan lehenengo lekua Kukatza da. Desalojoaren kontrako lip-dubean agertzen gara, eta eszenatoki gainean! Txiri Txorra ginenean uste dut.

*Leire:* Zea Mayseko taldekideak barra atzean eta gu eszenatokian! (kar, kar!)

*Iñigo:* Nik Kaskagorriko txosnan egindako bat oso gogoan daukat.

*Xabi:* Batek bestera eraman gintuen. Herri mugimendu askorekin konexioa izan dugu. “Rara Avis” bat ginen musika eszenan, promotora edo udal batentzat jo beharrean, guk herri mugimendua laguntzen genuen. Giroa sortu baino, gu giroaren barruan sartzen ginen.

*Leire:* Hainbat jai batzordek urtero deitzen ziguten: San Inaziok, Uribarrik, Errekaldek... Nahiz eta batzutean oso gaizki jo.. (kar, kar!) Jai batzordeek eta hainbat konpartsek ulertu zuten zer zen proiektu hau.

*Borja:* Azpimarratzekoak dira Galdamesen mendi puntan dagoen auzo bateko jaiak. Urtero deitzen ziguten eta hor jotzearen truke ne-kazalturismo batean aterpe ematen ziguten, eta asteburu-plana egiten genuen taldekideok elkarrekin bertan: larunbatean jaietan jo, parranda egin, hurrengo egunean barbakoa ne-kazalturismoan...

Baina leku fetitxerik baldin badugu, Zorrotza kenduta, jakina, Alde Zaharra izango litzateke. Bertan egin ditugu kontzerturik onenak bai jende aldetik eta baita gure dohai aldetik ere.

**Oso estilo anitzeko kantak jotzen zenituzten. Errepertorioa aukeratzea ez zen erraza izango...**

*Leire:* Ba gustuaren arabera osatu genuen, eta bakoitzaren apetei beti kasu eginez... Edo-nork proposamen bat jotzeko ekarri duenean inoiz ez dugu baztertu.

*Borja:* Irizpide moduko bat markatzearen: edo gure gustukoa izatea, edo gure gustukoa ez bada, barregarria izatea. Adibidez, Raphael edo Betty Misiego jotzen genuenean, gure estilora eramanda, jakina, apur bat zirikatzeo ere bazen.

*Xabi:* Abestiak aukeratzean saiatu ginen zer bait ezberdina bilatzen, betikoa ez izaten.

*Iñigo:* Saiatu ginen bai hizkuntzan, bai estiloan, errepertorio orekatua izaten. Eta betiko kantu ezagunak jotzen, baina ez ezagunenak eta talde guztiak jotzen dituztenak.

*Xabi:* Bartzelonako Can Vives gaztetxean jo genuenean, gure taldearen estiloa zehaztea eskatu ziguten. Haiekin izandako hitz-aspertu baten ostean, “performance karate-punk” estiloarekin etiketatu gintuzten. Eta gu poziki! kar kar!

## Errepertorio hain zabal horretatik zein da jendeak gehien txalotzen duen abestia?

*Leire:* Segun zein plaza eta zein abesti... Publikoaren adinaren arabera ere...

*Borja:* La Pollaren pouporri bat egiten dugu eta horrekin norbait lotan baldin badago, esnatzen hasten da.

## Zenbat abesti zenituzten prestatuta?

*Iñigo:* Azken errepertorioan 40 abesti genituen, baina guztira 100 bat abesti ezberdin baino gehiago jo izan ditugu.

*Borja:* Eta badugu propioa den abesti bat, eta estudioan grabatu duguna. Auzotarrok koordinadorak bere kanta egiteko eskatu zigun, eta nola ez dakigun ezetz esaten, ba kanta grabatzera sartu ginen eta Doctor Deseoko Francisek, Zea Mayseko Aiorak eta Gorka Usuaia raperoak abestu zuten gurekin.

## Bukatzeko, badakit oso goiz dela galdera hau egiteko, baina egin beharra dago: inoiz bueltatzeko zirrikiturik ba al dago?

*Borja:* Ba berez ez dugu aipatu... Bai erabaki dugu hau bukatzen dela. Ez dakit zertarako, baina badakit inoiz berriro batuko garela. Noizbait gutako norbait "auzoarentzat zerbait prestatzeko esan didate..." etorriko dela ziur nago... Nik hori buruan daukat, eta ziur nago inoiz joko dugula berriro, baina entseguak egiteko errutinarik ez dugu berriro hartuko... Baina batek daki! Lagunak gara!

*Xabi:* Hau musikaz harago doa, harreman sentimentala da, eta harremanari eutsiko diogu. Fabe de Fuka ez zen bakarrik jotzea. Atzean militantzia eta filosofia oso berezia zegoen... Eta hori guztia urteetan konpartitu dugu.



## LABURREAN

### Errepertorioko kanta bat aukeratu behar bada, zein aukeratuko zenukete?

*Xabi eta Iñigo:* Potatoren mixa.

*Ibai:* Betty Misiego.

*Leire eta Erlantz:* La Pollaren mixa.

*Borja:* Mano Negraren "Mala Vida".

*Iñigo:* Cicatrizen "Lola".

### Emandako kontzerturik gogoangarriena?

*Borja:* Oso gogoan dut Txiri Txorrrak emandako lehenengoa. Plazan, txosnetan. Produkzio aldetik, panpinak, koheteak ... soinu teknikariaren irainak... (kar, kar!)

### Jo ez duzuen eta gustura joko zenuten lekua?

*Borja:* Ba pena eman dit formatu hau gehiago atera ez izana. Gehiago bidaiatzea. Euskal Herritik kanpo birritan egon gara, baina adibidez Estatutik kanpo, inoiz ez.

*Iñigo:* Nik Iruñeko Sanfermin aipatuko nuke.

**EUSKAL  
PRESO ETA  
IHESLARIAK**



**ETXERA**

**GORA  
HERRIAI!**

★ *independentzia!*  
**SOZIALISMOA!**



**ASKABIDE**  
kultur elkartea  
**ZORROTZA**

**Martxoak 7 larunbata**

**17:00** Gaztegunean.

**Rap feminista sortzeko tailerra.**

Lehenengo saioa.

**Martxoak 11 asteazkena**

**IKUSI ETA IKASI familia eta gazteentzako kultur programa**

**18:00** Zorrotzako Udaltegia

**FAMILIEN TAILERRAK:**

Contact-kids tailerra.

**Martxoak 13 ostirala**

**18:30** Auzoka. Gela Laranja

**Hitzaldi - tertulia:**

“EZLN, erresistentzia, errebeldia eta duintasun eredu”

**Martxoak 18 asteazkena**

**17:00** Gaztegunean

**Rap feminista sortzeko tailerra.**

Bigarren saioa

**Martxoak 25 asteazkena**

**IKUSI ETA IKASI familia eta gazteentzako kultur programa**

**18:00** Basurtuko Udaltegian

(Zankoeta, 1. Basurtu)

**Zirkoa: KIKI KOKO ETA MOKO:**

“Parranda tutiplen”

**Apirilak 14-18**

Gure Lurraren udalekuak.

**Izen ematea:** martxoaren 11tik 13ra.

Info gehiago: 21. orrialdean

**Apirilak 25 Larunbata**

**IKUSI ETA IKASI familia eta gazteentzako kultur programa**

**12:00:** Zorrotzako Udaltegian

**Ipuin kontalari +keinu:**

**AMELI:** Amonaren istorioak

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (maiatza-ekaina) iragartzeko, [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbidera idatzi apirilaren 17a baino lehen.

**Txuletoia + arraultza frijitua + patatak + piper berdeak**



Plater hau fina da okela gustuko baduzu, eta gainera merkea!

Txuletoiaren osagarriak arraultza frijitua, patatak eta piper berdeak dira. Aukera dago txuletoia aldatzeko urraburu edo lupiaren orde.

Ardo botila edo garagardo kainoia opari.

**Nola prestatu:** Plantxa berotu eta txuletoia eta arraultza frijitu. Patatak eta piper berdeak, berriz, frijigailuan sartu.

**Zailtasun maila:** Erraza.

**Prezioa:** 16 euro 2 pertsonarentzat

**MADNESS TABERNA**

**Zalbidea estrata, 5, atzea**

**48013 zorrotza-bilbo**

Telefonoa: **94 441 62 75**







## Derbia

Joan Mari Irigoien Aranbarri.  
Elkar. 2019. 284 orrialde.



Umorezko eleberri bat idatzi du Joan Mari Irigoienek, futbolaren munduan girotua. Protagonistak, baina, ez dira futbolari eta entrenatzaileak, baizik eta futbolzaileak: Realaren aldeko bikote bat eta Athleticen aldeko beste bat, hiri eta plaza berean bizi direnak baina elkarri bizkar emanda eta muzin eginda, zein baino zein itsuago eta sutsuago. Abiapuntu horrekin, kontakizun jostalari bat eraiki du egileak, gai serioei eta asmo transzendentei ihes egiten dien satira lotsagabe bat, gure gizarte honetako joera makur batzuk irragarri utzi eta irakurleari barre eta algara eginarazi nahi dizkiona.

Gonbidatuta zaude, beraz, kexak eta penak alde batera utzita, kontakizun ganberro hau dastatzera. On egin!



## Willis Drummond: "Zugzwang"

(Tabula Rasa Records (TRR) / Like Literally) 2019



Ixilean gordetako sekretua izan zen Willis Drummond hirukotearen lan berriaren argitalpena. Diska atera baino egun batzuk lehenago ezagutu genuen berria. "Zugzwang" izenburu misteriotsu honen atzean xake jokoaren posizio bat ezkututzen da, non "jokalariak egiten duen edozein mugimenduk egoera larriagotzen du". Egia esan, power trio honen gaur egungo egoera ezinhobea da. Diskaren

aurkezpenekin Bilbo eta Biarritzeko aretoak leporaino bete dituzte eta Asian ere izan dira, non jasotako harrera oso ona izan den.

Aitortu behar dut diska berriaren aurkezpena joan aurretik "Lehentasuna" eta "Bigarren aukera" abestiak bakarrik entzunda nituela (lan berriari buruz ari naiz) baina ia bere osotasunean jo zuten eta gerora entzundako abestiek zuzenean indar gehiago dutela nabaria da. Gustuko duzun talde bat izanda normalena da kontzertura etxeko lanak eginda joatea. Baina nahiz eta horrela izan ez, ondorengo entzunaldietan zuzenean entzundako pieza horiek oroimenaren parte bilakatu dira, batez ere "Sari soziala" edota "Lurrunaren atzean" bezalako kanta ederrak. Zuzenean ez badituzu ikusi, sobera gomendagarriak dira. Joan ikustera!

*Ibai Barrios*

Doinua:

Lurreranpean sar nindaiteke

Zaldibarreko zabortegiko

Aferaren aipamena

ezinbesteko bihurtzen da gaur

aipatu beharrak pena

bi langile hor zokoratuta

kontua ez da gardena

lehendakariak isiltasunez

eusteko a ze tema!

espero dudan gauza bakarra

arduradunen kondena

Asier Urkiza



MADNESS KAFETEGIA  
Elena eta Javier  
Zalbidea estrata, 5- atzea  
ZORROTZA  
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75



1<sup>o</sup> urte

ZORROTZA F.C.  
kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!



ARIN GRAF, S.L.  
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.  
48013 ZORROTZA - Bilbo  
Tel/Fax: 94 441 38 23  
info@aringraf.com

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



## Menperatuaren nekea

Nekatuta nago betiko argumentuak entzuteaz, baserrian nahi gaituztenekin eztabaidatzeaz.

Nekatuta euskararen aldeko keinu ñimiñorik egiten ez duten mundu mailako herritarrez. Eskakizun oinarrikoenak ere baztertu diezazkiguten, bide batez erruaren zama gure bizkar gainean kargatuz.

Sinestuko ez zenituzketen gauzak ikusi ditut. Ikusi dut jendea lurralde bateko bere bizilagun askoren lehen hizkuntza ulertu ere egin nahi ez duena. Ikusi ditut arrangurak, kexak, protestak hizkuntza hori zaindu behar izateagatik. Ikusi ditut, bata bestearen atzetik, orain hau dela gero beste hura dela, bere burua zuritzen duten pertsonak. Ikusi ditut irainak, probintzialismoa, ahula nahi bes-teko indarrez jazarri ahal izatea, zu botere-

tsua zarelako. Jende multzo handi baten adierazpide behinena ahuntzaren gauerdiko eztultzat hartzea, badakizu, ume eta txakur- rren gauzak. Ikusi dut harropuzkeria, bere erregistro ugarietan, ikusi dut elebakar dok- toen larterdia ezjakinari gauzek nola behar duten esaten. Ikusi ditut bost ogerleko ilus- tratuak, beren eskirolajea estaltzeko min- gaina moztu diotenari eztarria ere kentzeko prest daudenak.

Gauza horiek denak ikusi ditut eta ondorio batzuk atera. Bat. Jende jakin batekin ez dut inora joan nahi, ez nago sakon-sakonean nire hizkuntza atzeratua dela pentsatzen du- tenekin ezer egiteko prest. Ezkerraren ize- nean, ustezko berdintasun baten izenean identitate zein hizkuntza zapalduak behin betiko zokoratu nahi dituztenen bidelaguna sekula ere ez. Bi. "Vascoak" gora "vascoak" behera. Beharrezkoa ote da euskal hiztuna izatea araztasunez beteriko izendapen loria- tsu (lagun batek halaxe saldu dit) hori jaso- tzeko? Ez dakit eta ez dut jakin nahi, baina uste dut Euskal Herrian bizitzeko adin bate- tik (40?) beherako guztiek euskara behintzat ulertu beharko luketela. Eta Euskal Herriko eremu bateko ordezkari publikoa izango denak bi hizkuntza koofizialak menperatu beharko lituzkeela.

Baina zer nahi duzue esatea, nekatuta nago betiko argumentuak entzuteaz, baserrian nahi gaituztenekin eztabaidatzeaz. Nekatu- ta euskararen aldeko keinu ñimiñorik egiten ez duten mundu mailako herritarrez. Eskaki- zun oinarrikoenak ere baztertu diezazkigu- ten, bide batez erruaren zama gure bizkar gainean kargatuz. Eta horra hor azkenengo ondorioa: gauza batzuk ez dira aldatzen, kamarada. Nazionalista espainolak ez dira bakarrik piperpotoa paparrean daramate- nak. Bide bihurriak ditu inperialismo linguis- tikoak. Bide guztiek helmuga bera, ordea: espainola ez den guztiarekiko herra bizia.

Asier Urkiza



Iragar zaitez

# ZM

ZORROTZ MORROTZ  
aldizkarian!

Euskara sustatu  
Zorrotzan!

Tarifik eta informazioa: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



1908ko martxoaren 8an, New York-en, 146 emakume langile erail zituzten haien lan baldintza prekarioengatik protesta uzteari uko egiteagatik. 1975ean, Nazio Batuek martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izendatu zuten.

Martxoaren 8an, Emakumeen eta generoagatik bazterkeria sufritzen duten pertsona guztien eskubideen defentsan jarduten dutenak gogora ekarri nahi ditugu eta gure borroka haienari batu, gizonezkoen nagu-

sitasuna eta agintea ahalbidetzen duen gizarte antolaketaren aurka.

Horregatik, indarkeria, parekidetasun eza, prekaritatea, sexuaren araberako lan banaketa, zaintza eta familia barneko rolak, arrazakeria, edertasun kanonak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala oztopatzen duten zapalkuntza guztiak salatu nahi ditugu.

Horregatik, martxoaren 8an ez gaitzazu zorriondu... eta gure eskubideak defendatzen lagundu!!

## SALAKETA ARGAZKIA



### Zalbidea ala zaldi-bidea?

Antzina, kale hau zaldien bidea omen zen. Egun, zaldien bidea kotxeek bereganatu dute eta zaila da gizakientzako bide bezala irudikatzea: espaloi estu-estuak, argiteria eskasa... Bere hitzetan, aurreko agintaldian erreformatu behar zuen udalak, ea behingoz bidea ematen dioten.

Restaurante  
**Arsenio**

Tfno. 94 497 10 03  
Clara Campoamor, 6  
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak  
Menu bereziak (enkarguz)  
Eguneko menua

  
**Lápices**  
LIBURVENDENDA

  
Untziola kalea, 8  
ZORROTZA

**Bar**  
**basarri**

**PINTXO**  
**ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana  
errepidea 10  
48013, Zorrotza



# Ba al duzu BARIK bat? Iraungi da? Zer egin behar dut?

Lehenengo galderari “bai” erantzun badiozu, eta hurrengo bie  
“ez dakit”, artikulu hau azkeneraino irakurri behar duzu.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak kaosa sortu du BARIK txartelen  
iraungitze datarekin. Emandako komunikazioa eskasa,  
berantiarra eta nahasia izan da.



Bizkaiko Garraio Partzuergoak kaosa sortu du BARIK txartelen iraungitze datarekin. Bizkaian BARIK txartel gehiago daudela biztanle baino kontuan hartuta, edozein informazio kontu handiz eskaini beharko litzateke, eta, hala ere, BGPk kontrakoa egin du dena kopilatzen.

Jarraian, trikimailu bat kontaktuko dizugu, BARIK txartelarekin zer egin behar duzun jakiteko: BARIK guztiek dute txartel-zenbakia atzeko partean, goiko aldean, eta 13 digitu ditu guztira. Lehenengo biak fabrikazio-urteari dagozkio. Zure BARIK 14rekin hasten bada, esan nahi du 2014koa dela, 15ekin 2015ekoa, eta horrela hurrenez hurren...

Nahikoa da bi zifra horiei 7 gehitzea, eta dagoeneko jakingo duzu txartel horren iraungitze-urtea, bezeroen arretarako bulegoetara alferrikako joan-etorriak saihesteko modu on

bat, bai eta bezeroen arretarako langileekin haserretzea eta gaizki ulertuak ere.

Beste era batera esanda, BARIK txartel-ko lehen bi zenbakia 14 edo handiagoak badira, ez da beharrezkoa ezer egitea. Ez da iraungiko 2021 urtea baino lehen. Kalkulu honek BARIK txartel guztietarako balio du, pertsonalatuak (argazkiarekin) eta anonimoak (argazkirik gabekoak).

Baina zer egin behar dut, hala eta guztiz ere, BARIK iraungi bada?

Pertsonalizatua bada (argazkiarekin), nahitaez joan beharko duzu Bezeroen Arretarako Bulego batera. Anonimoa bada (argazkirik gabekoa), BARIK berria eros dezakezu estankoa ala kioskoan, eta iraungitako BARIK txartelean oraindik saldoa geratzen bazaizu, metroko edozein geltokitan alda dezakezu berrira. Hori bai, gogoratu iraungitze-datatik 4 hilabete dituzula hori egiteko.

BGPk hasieratik egin behar zuen hori, modu azkar, argi eta zehatz batean azaldu, kasu bakoitzean egin behar zena, baina beste behin Bizkaiko erakundeek ez dira gai izan, eta emandako komunikazioa eskasa, berantiarra eta nahasia izan da.

Baina zorrotzarrok, lasai egon, horretarako dugulako Zorrotz-Morrotz, informazio argia, zehatza eta euskaraz jasotzeko.

*Raúl Méndez,  
EH Bilduko batzarkidea*

## Udaberriko kanpalekua Arroyon (Kantabria)

Aurten, berriz ere, Gure Lurrako bolondresak urtean zehar neska-mutilek irrikaz itxaroten duten kanpalekua prestatzen ari gara. Oraingo honetan, ostatua Arroyon (Kantabrian) kokatuta dago, Ebroko urtegiaren barruko penintsulan, hain zuzen ere. Zonaldeak ezaugarri natural paregabeak eskaintzen dizkigu eta hainbat jarduera burutzeko aukera emango digu: uretako zein mendiko jarduerak, ginkanak, orientazio dinamikak, ekintzak naturan ...

Apirilaren 14tik 18ra (asteartetik larunbatera) burutuko den Udaberri Kanpalekurako prestateta guztiak aurreratzten ari gara. 2003 eta 2013 urte bitartean jaiotako haur eta nerabe guztiak Pazko astean bestelako oporrez gozatzeko aukera izan dezaten. Horretarako Gure Lurrako begirale talde bat lanean ari da beraien gustukoak diren ekintza mordo bat pentsatzen eta prestatzen.

Gure kanpalekuetan disfrutatzeaz gain, neska-mutilek autonomia lantzen dute, balioak garatzen dituzte, euskara ingurune ez-akademikoan erabiltzen dute, auzoko beste haur eta gazteekin sozializatzen dira, naturaz eta landa-eremuaz gozaten dute... Hori guztia eta askoz gehiago da gure kanpalekuetan lantzen duguna!



Beraz, ez ezazu birritan pentsatu eta etorri 5 egun ikaragarri pasatzera! Ez zara damutuko!

Informazio gehiago behar baduzu, sartu gure web orrialdean: [gurelurra.org](http://gurelurra.org) edo gerturatu gure lokaletara (Fray Juan 33), arratsaldeko ordutegian.

Izen-ematea martxoaren 11tik 13ra arte.



 MESÓN  
LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-baztegi propioa  
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
[www.mesonluna.es](http://www.mesonluna.es)

AUTO ESCOLA  
KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1  
Tlfno: 94 427 88 10

Regalos  
Omega

oparidenda

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza

94 482 03 66



## Manuel

Egia esan, ez dut uste nik gehiegi egin dezakedanik, hala ere, arazo larria dela onartzen dut.



## Bego

Etxean ahalik eta gehien egiten saiatzen gara, nahiz eta gutxi izan; guztion artean egoera aldatu behar dugu.

## Aldaketa klimatikoa:


Auure egitekoa nahikoa egiten ari zarela uste duzu?

Ainara Garcia




## Amaia

Argi dago zerbait txarto dabilela, eta guztion erantzukizuna denez, txipa guztiz aldatu behar dugu. Nire esku dagoena egiten saiatzen naiz.



## Marina

Benetan saiatzen ari naizela, bilobek birziklatzearen kontuan laguntzen didate nahasgarri samarra delako niretzat.



## Sergio

Bakoitzak bere tanta jarri behar du, baina industria handiak eta estatuak drastikoki aldatzen ez badira... ez dugu ezer lortuko.

Jai-Alai kafetegia



Abaro estrata, 12  
94 490 12 59



Vía gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

DisiNUPA



BAR VENECIA

Espezialitateak:  
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



# Bilbon euskaraz

**B**

**Bilbao**

▶ [www.bilbaoeuskaraz.eus](http://www.bilbaoeuskaraz.eus)

iKasi  
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTI ILIHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • 📍 94 442 48 75  
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILIHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • 📍 94 442 00 21  
✉ 014159aa@hezkuntza.net




I.E.S.  
ZORROTZA  
B.I.

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374  
☎ 94 439 97 41  
📍 015078aa@hezkuntza.net  
[www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net](http://www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net)

# Kutxabank Auto Asegurua

Ekarri zeure auto aseguru eta  
prezioa jaitsiko  
dizugu.



Auto-aseguruaren prima bezeroak gaur egun beste aseguru-etxean duen modalitate berdinarekin arabera eta titular berarekin egokituko da, Liberty Taldeko aseguru-etxeenak izan ezik (Liberty, Genesis eta Regal). Horrez gain, 25 eta 75 urte bitarteko adina izan behar du eta bere gidabaimenak bi urtetik gorako antzintasuna. Frankiziarik gabeko Arrisku Orotako modalitatea eskaintzatik kanpo dago. Sustapen hau 2020/05/31ra arte kontratatutako aseguruetarako da. Hala nahi bada, aseguruia kontratatu denetik 6 hilabete arteko epea dago indarrean hasteko.

Kutxabank Auto Asegurua Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros SA sozietatearen produktua da. KUTXABANK da Kutxabank Vida y Pensiones SAU sozietatearen banka eta aseguruetako operadore bakarra eta azken honen baimena dauka Kutxabank Aseguradora SAU sozietatearekin eragiketak egiteko. Artekariaren Erregistro Administrazio berezian C0654A95653077 zenbakiaz inskribatuta dago eta aseguru honetan bitartekari dihardu. Kutxabank Aseguradora SAU eta Liberty Seguros SA sozietateen artean sinatutako banaketa-hitzarmenaren barruan.

**kutxabank**

**ERRAZ  
HURBIL  
ORAIN**